

INFORMAZIO LIBURUXKA
HONEN EDUKIA ORIENTATZEKO BAINO EZ DA,
ETA EZ DA LOTESLEA

INFORMAZIO ZEHATZAGOA NAHI BADUZU,
DIRUZAINZA OROKORRAREN PROBINTZIA
ZUZENDARITZARA EDO ZURE ETXETIK
HURBILEN DUZUN GIZARTE SEGURANTZAREN
ADMINISTRAZIOA JO DEZAKEZU. HORREZ
GAIN, KUDEAKETA ZERBITZUA ETA
HERRITARREN ARRETARAKO TELEFONORA



Prestakuntza Programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartzea

**BULEGOETAKO PUBLIKOAREN
ARRETARAKO ORDUTEGIA**
9:00etatik 14:00etara,
astelehenetik ostiralera.

TELEFONOZKO ARRETA PERTSONALIZATUA
Astelehenetik ostegunera: 9:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 18:00etara
Ostiralek: 9:00etatik 14:00etara.
901 50 20 50

1493/2011 ERREGE DEKRETUA - 259. BOE, urriaren 27koa

www.seg-social.es



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



Zer da Prestakuntza Programa?

Irakastea besterik helburua ez duten prestakuntza-praktikak egiteko jarduerak dira. Unibertsitateko edo lanbide-heziketako ikasketekin lotuta daude eta enpresa edo erakunde publiko nahiz pribatueta egitekoak dira; betiere parte-hartzaileek kontraprestazio ekonomikoa jasotzen badute eta lan-harremana ezartzea ekartzen ez badu.

Norengan du eragina?

Enprejaburuak: Erakunde publiko edo pribatuak.

Langileak: Prestakuntza-programetan parte hartzen duten edo parte hartu duten pertsonak, unibertsitateko edo lanbide-heziketako titulua badute, eta jarduerak, Gizarte Segurantzako Erregimenen batean sartzea ekarri ez badu.

Zer behar du Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartzeko?

- ★ **Berariazko kotizazio-kontuaren hodea -KKK-,** Gizarte Segurantzaren edozein Administrazioak esleitu duena.
- ★ Kontraprestazio ekonomikoa egiten duen erakunde publiko edo pribatuak **egindako ziurtagiria.** Ziurtagiri horretan, prestakuntza-programak, eskatutako baldintzak betetzen dituela eta haren iraupena jasoko dira.

Zer eragin ditu Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartzekak?

Enprejaburuak:

Gizarte Segurantzaren kotizazioa egiteko, **prestakuntzarako** eta **ikaskuntzarako kontratuatarako** ezarritako **kotizazio** arauak aplikatuko dira. Hala ere, ez da **langabeziako** kontingentziarengatik kotizatu behar, ez eta **Soldatah Bermatzeko Funtziarako** eta **Lanbide Heziketarako** ere.

Langileak:

- ★ Prestakuntza-programetan parte hartzen dutenak, besteren konturako langileen asimilatutzat hartuko dira.
- ★ Babes-ekintza: Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorri dagokiona da, eta langabeziagatik babesa da hortik kanpo geratzen den bakarra.

Atzeraeraginezko izaera al du?

Bai, Espainian edo atzerrian prestakuntza-programetan parte hartu duten pertsonentzat, Errege Dekretua indarrean sartu aurretik.

Kotizazioa atzerako eraginarekin gauzatzeko, prestakuntza-programetan parte hartu duela eta haien iraupena egiaztatzeaz gain, **hitzarmen berezia** sinatu behar du langileak GSDOrekin.

Zertan datza Hitzarmen Berezia?

- ★ Erregimen Orokorrean egokitzea, egindako prestakuntza-aldietarako, **gehienez, 2 urte arte.**
- ★ Sinatzaileak kuota ordainduko beharko du, ordainketa bakarraren bidez, edo zatikako ordainketaren bidez, gehienez, hitzarmena formalizatzen diren bikoitzak diren hileko kuotetan.
- ★ Eskatzeko epea **2012ko abenduaren 31n** bukatuko da.

*Praktikaldiak
Erregimen Orokorrean
kotizatutako alditzat
hartzea*

Ikerketako behadunak

2003ko azaroaren 4aren aurretik, edo, hala badagokio, beken Erregiostroan programak inskribatzeko datan, ikerketaren arloko prestakuntza-programetan parte hartu duten ikerketako behadunek, Errege Dekretu honetan aurreikusitako hitzarmen berezia sina dezakete, gehienez, bi urteko aldi, atzeraeraginezko izaera duen kotizazioa gauzatzeko.